

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala**

Bermeoko alde zaharrear jarduerarik gabeko lokal hutsen erabilera sustatzeko diru-laguntzen deialdia zuzentzea. Lokalbide 2021 programa. BDNS (Identif.): 569212.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/569212>).

2021eko maiatzaren 28an, Udalak Lokalbide 2021 programaren oinarri arautzaileak onartu zituen osoko bilkuran. Akats baten ondorioz, 2021eko ekainaren 18an diru-laguntza horren deialdia argitaratu zen, eta Udal Gobernu Batzordeak ez zuen onartu 2021eko uztailaren 6ra arte. Jakitera ematen da Bermeoko Udalak, Gobernu Batzordean, 2021eko uztailaren 6an egindako bilkuran, diru-laguntzen deialdia onartu duela, Bermeoko alde zaharrear jarduerarik gabeko lokal hutsak erabil daitezzen bultzatzeko. Beharrezko dokumentazioa eta informazioa udalaren webgunean dago eskuragarri: www.bermeo.eus/1502.html?L=2

Bermeon, 2021eko irailaren 29an. — Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense